BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIRAKO BULEGO-ALTZARIEN ALOKAIRUA, GARRAIOA, MUNTAKETA ETA DESMUNTAKETA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuak Donostia Zinemaldiaren behin-behineko bulegoetarako bulego-altzarien alokairu, garraio, muntaketa, garbiketa eta desmuntaketa du xede; bulego horiek Kursaalean edo irailean Zinemaldia egiteko erabiliko litzatekeen beste edozein egoitza edo lokaletan egongo dira.

Honako plegu honetan, behar diren altzarien ezaugarriak eta kopuruak ageri dira, baita garraio, muntaketa eta desmuntaketa zerbitzuenak ere.

2.- BEHAR DIREN ALTZARIEN EZAUGARRIAK

Oro har, altzariek gaur egungo lineak izango dituzte, eraikinarekin bat datozenak, eta material arinak eta gardenak hobetsiko dira.

Altzari sorta hau multzoa dela ulertuko da, eta koherentzia izan beharko du, beraz, ez soilik bulego bakoitzean, baita osorik ere.

Kontratuaren iraupenean zein balizko luzapenetan, altzariek erabilpen egoera onean egon beharko dute, marradurarik, kolperik eta zikinkeriarik gabe.

Izen hau lan egiteko mahaiak, osagarriak eta bilera-mahaiak, eta hainbat mota eta tamainatako armairuak, manparak eta erakusmahaiak, eta haien osagarri guztiak izendatzeko erabiliko dugu.

- Laneko mahaia.
  Kontrakoa adierazi ezean, lanpostuetako mahaiak trinkoak izango dira; hau da, lan egiteko gainazal etengabea izango dute, area nagusi batek osatua. Ordenagailuko teklatua mahaiaren gainazalaren gainean jarriko da, ez teklatu euskailu batean.

  Ordenagailua (monitorea eta teklatua) behar bezala eta ergonomia aholkuen arabera jartzeko aukera izan behar da; pantailaren eta begiaren arteko 55cm edo hortik gorako distantziaz eta, besaurrea jartzeko, teklatu aurreko 10cm edo hortik gorako espazioaz.

  Lan egiteko gainazal nagusiak 1600mm x 800mm izango ditu, eta altuera 720mm izango da.

  Estalkiak zein gainerako elementuek ez dute ertz bizirik izango, nahiz eta ez den ezinbestekoa ertzak postformatzea edo alakatzea.

  Estalkia estratifikatuzkoa, melaminazkoa edo egurrezkoa izango da eta kolorea lizitatzaileak aukeratuko du.

  Mahaiak behealdea izango du aurrealdean. Behealdea arina izango da, bai dimentsioetan bai diseinuan.

- Publikoari arreta emateko mahaiak.
  Gutxi gorabehera, 1070mm-ko altuerako eta 2000mm-ko luzerako erakusmahai zuzena, 720mm-ko altuerako lan-estalkia duena, eta lan egiteko 2.000mm-ko zabalerako eta 600mm-ko sakonerako gainazala duena.

  Erakusmahai zuzena, 1070mm-ko altuerakoa, 1000mm-ko luzerakoa eta 500mm-ko sakonerakoa.

- Bilera mahaiak.
  Bilera-mahaiak estratifikatu edo egurrezko kontratxapatu estalkia izango dute. Honako dimentsio hauetan beharko dira, gutxienez:

- 1200mm inguruko eta 720mm-ko altuerako biribila.
- 800mm inguruko eta 720mm-ko altuerako biribila.

- Mahai osagarriak.
  Mahai angeluzuzena, 1000mm x 500mm ingurukoa eta 720mm inguruko altuerakoa.

- Mahai altuak.
  Mahai karratua, 600mm x 600mm gutxi gorabehera, eta 1050mm inguruko altuerakoa, erdiko hanka duena.

- Tiradera blokeak.
  - Giltza duten 3 tiradera bloke gurpilduna
  - Bloke gurpilduna, artxibategi batekin eta giltza duen tiradera batekin

  Irristailu teleskopikoak eta irristaketa leuna izango dituzte, baita topeak ere, erabat atera ez dadin.

  600mm-ko sakonera, gutxi gorabehera.

- Armairuak.
  Armairuek honako neurri hauek izango dituzte:
  - Altuerak (gutxi gorabeherakoak): 1900mm, 1450mm
  - Zabalera (gutxi gorabehera): 900mm
  - Sakonera (gutxi gorabehera): 420mm

  Barrualdearen eta ateen konfigurazioak honako hauek izan ahal izango dira, gutxienez:
  - Orri-ate itsuak.
  - Pertsiana bertikala.
  - Apalak.
  - Armairuetako ateek sarrailak izango dituzte.

- Aulkiak.
  - *Lan egiteko aulki ergonomikoak*: Birakaria eta gurpilduna, beso-euskarriarekin eta gas bidezko goratzea duena. Bizkarralde altua eta erregulagarria.
  - *Bisitari aulkia*: Tapizatutako bizkarraldearekin eta eserlekuarekin (edo polipropilenoa eta abar).
  - *Bilera mahaietarako aulkiak*: Bizkarraldea izan behar dute eta bat egin behar dute bilera-mahaiekin.

- Aulkitxoak.
  Birakaria, eta bizkarraldea eta oinazpiko uztaia izan behar ditu.

- Esekitokiak edota esekitoki-aterki ontziak.
  Zutik mantentzen dena eta altzariekin bat datorrena.

- Apalategiak.
  Zutik mantentzen diren apalategiak, 1600mm-ko altuerakoak, 800mm-ko zabalerakoak eta 400mm-ko sakonerakoak, gutxi gorabehera, altzariekin bat datozenak.

- Manparak.
  Manpara autosostengagarriak, modularrak, gutxi gorabehera 1900mm-ko altuerako eta 1200mm-ko zabalerako angeluak sortzeko aukera emango duten pilareekin. Espazioak eta bulegoak bereiztea eta iragarki taula lana egitea dute helburu.

- Zinta bilkorra duten pilareak.
  Ilarak zuzentzeko pilareak, zinta iristeko 3 bide dituztenak, 92cm-ko altuerakoak, gutxi gorabehera, eta 2,5m eta 3m arteko zinta luzera dutenak.

- Mahai tolesgarriak.
  Altzairuzko egitura eta dentsitate altuko polietilenozko edo melaninazko estalkia dituzten mahai tolesgarriak. Gutxi gorabeherako neurriak:
  750mm-ko altuera, 1900mm-ko luzera eta 500mm-ko sakonera
  750mm-ko altuera, 2000mm-ko luzera eta 800mm-ko sakonera

- Kutxak.
  Metakrilato gardenezko kutxak, zirrikitua eta sarraila dituztenak, gutxi gorabehera, 500mm-ko luzera, 400mm-ko sakonera eta 400mm-ko altuera dutenak.

3.- ALTZARI ZERRENDA

Behar diren bulego altzariak eta kopuruak daude hemen:

- 68 bulego-mahai, honako neurri hauek dituztenak: 1600mm-ko luzera, 800mm-ko zabalera eta 720mm-ko altuera.

- 30 mahai osagarri, honako neurri hauek dituztenak: 1000mm-ko luzera, 500mm-ko zabalera eta 720mm-ko altuera.

- 8 mahai altu karratu, honako neurri hauek dituztenak: 600mm x 600mm, 1050mm-ko altuera eta erdiko hankarekin.

- 65 tiradera bloke, gurpildunak, giltzadunak, bulego-mahaien azpian jartzeko.

- 120 aulki birakari, gurpildunak, gas bidez goratzen direnak, eta bizkarralde altu erregulagarria dutenak.

- 40 bisitari aulki, tapizatutako bizkarraldea eta eserlekua dituztenak (edo polipropilenoa eta abar).

- 25 bilera-mahai biribil, 720mm-ko altuerakoak eta 800mm-ko diametrokoak.

- Bost lagunentzako 4 bilera-mahai, 720mm-ko altuerakoak eta 1200mm-ko diametrokoak.

- 100 aulki, bilera-mahai biribilekin bat datozenak.

- 8 armairu baxu, oin-atea, apalak eta giltza dituztenak, 1450mm-ko altuera, 900mm-ko zabalera eta 420mm-ko sakonerakoak.

- 15 armairu altu, oin-atea, apala eta giltza dituztenak, 1900mm-ko altuera, 900mm-ko zabalera eta 420mm-ko sakonerakoak.

- Zutik mantentzen diren 40 apalategi, 1600mm-ko altuerakoak, 800mm-ko zabalerakoak eta 400mm-ko sakonerakoak, gutxi gorabehera, altzariekin bat datozenak.

- 2 erakusmahai, 1070mm-ko altuera, 1000mm-ko luzera eta 500mm-ko sakonerakoak.

- 3 erakusmahai, 1070mm-ko altuera, 2000mm-ko luzera eta 600mm-ko sakonerakoak, 720mm-ko altuerako lan estalkia dutenak, eta lan egiteko 2000mm-ko zabalerako eta 600mm-ko sakonerako gainazala dutenak.

- 50 aulkitxo birakari, bizkarraldea eta oinazpiko uztaia dituztenak.

- 10 mahai, hanka eraisgarriak dituztenak, 750mm-ko altuerakoak, 1900mm-ko luzerakoak eta 500mm-ko sakonerakoak.

- 15 mahai, hanka eraisgarriak dituztenak, 750mm-ko altuerakoak, 2000mm-ko luzerakoak eta 800mm-ko sakonerakoak.

- 30 manpara autosostengagarri eta modular, gutxi gorabehera 1900mm-ko altuerakoak eta 1200mm-ko zabalerako angeluak sortzeko aukera emango duten pilareekin. Espazioak eta bulegoak bereiztea eta iragarki taula lana egitea dute helburu.

- 25 esekitoki-euritarako ontzi edo esekitoki gehi euritarako ontzi, zutik mantentzen direnak eta altzariekin bat datozenak.

- Ilarak zuzentzeko 30 pilare, zinta iristeko hiru bide dituztenak, 92cm-ko altuerakoak, gutxi gorabehera, eta 2,5m eta 3m arteko zinta luzera dutenak.

- Metakrilato gardenezko 5 kutxa, zirrikitua eta sarraila dituztenak, gutxi gorabehera, 500mm-ko luzera, 400mm-ko sakonera eta 400mm-ko altuera dutenak.

4.- MATERIALAREN ERABILGARRITASUNA

Esleipendunak materialaren elementu bakoitzaren %10 gehiago izan beharko du, gutxienez, bere biltegian, eta osorik berea izango da.

5.- ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

2024an plegu honen xede diren altzarien muntaketa larunbatean, irailak 14, 08:00etatik 20:00etara egingo da, eta datozen urteetan data, gutxi gorabehera, bera izatea espero da.

Ekitaldia behin bukatuta desmuntatu beharko dira altzariak. Desmuntaketarako denbora 6 ordukoa izango da gehienez. Datu moduan, 2023an urriak 1eko (igandea) 05:00etatik 11:00etara egin zen desmuntaketa.

Muntatzea eta desmuntatzea lanegunetan, jaiegunetan edo gauez egin ahal izango da eta honek ez du aldaketarik eragingo lizitatzaileek eskainitako prezioan.

Materialek estetika eta garbitasun baldintza egokiak izan beharko dituzte.

Altzari bakoitzaren eskaera aldatu egin liteke, %10 gora edo behera, eta aldaketa horrek ez du inongo aldaketarik eragingo lizitazio prezioan. Altzari bakoitzaren eskaera %10etik gorakoa bada, lizitatzaileak bere eskaintzan ezarritako unitate prezioan ordainduko dira unitate osagarriak.